



VII.URTEA 1.582 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Abenduaren 15ean
konzentrazioa
arratsaldeko 20:00etan
Triangulon.

Zazpigarren egin du Mendiluzek finalean

Bertsolari Txapelketa

Maialen Lujanbiok jantzi du txapela, buruz burukoan Amets Arzallusekin aritu eta gero.

ERREDAKZIOA

Bertsolari Txapelketa Nagusia 09ko txapelduna Maialen Lujanbio da. Herenegun izan zen finala, Barakaldoko BEC-en eta emozioz eta kalitatez beteriko saioa eskaini zuten zortzi finalistek. Iruran bizi den Aitor Mendiluze ere txakun aritu zen eta azkenean, zazpigarren egin zuen. Andoaindarrak agurrean abestu bezala «bertsoaren dama» izan da garaile txapelketa nagusian, buruz burukoan Amets Arzallusekin aritu eta gero. Lujanbio Txapelketa Nagusia irabazi duen lehen emakumea da, gainera. Joxe Agirre bertsolari beteranoaren eskutik jaso zuen txapeldun berriak txapela. Saioa ede-

rra izan zen eta bertsozaleek ia zoratzeraino gozatu zuten oholtza gainean entzundakoarekin.

Lujanbio eta Arzallusek maila bikaina erakutsi zuten, baina gainerako bertsolariek ere ikuskizun ederra eskaini zuten.

14.500 lagun BEC-en

Iragarrita zegoen moduan, lepo bete zen Barakaldoko BEC aretoa; 14.500 lagunek segitu zuten finala bertatik bertara.

Etxean sarrearik gabe zirenek ere ez zuten aukeragaldunahi izan eta telebista, irratiz zein internetez izugarritzko jarraipena izan zuen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalak.

Zutituta eta txalo zaparrada handi batez hartu zituzten ikusleek zortzi finalistak; hortik aurrera festa handi bat izan zen finala. Bertsolarien jarduna etengabeko txaloek eskertzeaz gain, hainbat momentutan BEC osoak olatu ezaguna egin zuen.

PUNTUAZIOA

■ **Maialen Lujanbio.** Goizean 690,50 puntu eta arratsaldean 940,25 puntu. Guztira 1.630,75.

■ **Amets Arzallus.** Goizean 662 puntu eta arratsaldean 920 puntu. Guztira 1.582 puntu.

■ **Jon Maia.** Goizean 651,50 puntu eta arratsaldean 408,50 puntu. Guztira 1.060 puntu.

■ **Andoni Egaña.** Goizean 644 puntu eta arratsaldean 414 puntu. Guztira 1.058 puntu.

■ **Unai Iturriaga.** Goizean 633,50 puntu eta arratsaldean 412,75 puntu. Guztira 1.046,25 puntu.

■ **Sustrai Colina.** Goizean 637 puntu eta arratsaldean 400,50 puntu. Guztira 1.037,50 puntu.

■ **Aitor Mendiluze.** Goizean 617,50 puntu eta arratsaldean 391,75 puntu. Guztira 1.009,25 puntu.

■ **Aitor Sarriegi.** Goizean 596,50 puntu eta arratsaldean 387,25 puntu. Guztira 983,75 puntu.



Txakun aritu zen igandean Aitor Mendiluze andoaindarra. BERTSOZALE ELKARTEA

Bukaera abiapuntu



Iritzia

Felix Irazustabarrena

Eaarra izan zen Barakaldon bizi izandakoa, txapelketa eder bati bukaera paregabea eman zion ekitaldia, BEC-ekoa. Goizeko zortziak, eta eskualdeko autobusak abiatu ziren bertso hiriburura ahaztuko ez genuen egun pasa baten billa. Eta baita topatu ere.

Hambost mila lagunetik gorako entzuleen artean eskualdeko asko eta asko, inguruko bertso eskola-koak, lagunak, ezagunak... bertsozaleak. Eta oholztan Aitor Mendiluze beste zazpi bertsolari puska-kin batera. Saio bikaina eskaini ziguten, ni oso beteta aterain nintzen ez bakarrik bertako emozio, txalo, euforiaz. Bertsokoe ere ase ninduen. Eta han zegoen Aitor. Behar bada 2009ko logotipoaren antze- ra, batzuetan gorago eta bestetan beheraxeago ibili zena baina maila emanez, beste lagunak bezala.

Hainbeste jaso eta bizi eta gero ez da behar bada momentu bakoi- tzak zertan huts egin eta asmatu zuen esatekoa, baina hori eskatu didatenez, eta baimena hala hartu- ta Mendiluzek nere gogoan iltza-

tutakoak aipatuko ditut. Aparta- tzeko modukoa iruditu zitzaidan bere zortziko txikiko lana. Bestela- ko estereotipoa geratzen denean, Aitorrek (ez orduan bakarrik) era- kustun duen umore fina, gaiztake- ria, pikardia... eskertzekoak dira eta bertsolariek erregistro batetik bestera pasatzeko duten abilezia, kapazitatea erakusten du. Erru- siar mendiko beste adiera bat, segi- dan Saharako arazoaz edo kaleko plaka horiaz hitzegiteko.

Bakarkakoetan bigarren go- rrekin geratzen naiz. Aitak zuen kale izena kendu nahi ziotenekoa, bigarren bertsoarekin zehazki. Hamarreko txikian Colinakin errehabilitazio gelan fin ikusi nuen, ondo lotutako bertsoak erai- kiz. Puntutan ere gustatu zitzaidan eta bi bi aldiz, beraz lau, esan bazun (bazuten) ere, ez nuke jarriko ho- rregaitik BEC-eko garbitzaile mo- duan.

Gure olatuaren zorretan geratu zela zioen Aitorrek agurrean. (...) *ta gu tanta bana / itsasoa barna / ba- koitza doana / zuek eramana / zor- dizuegu olatu egin izana.* Eta gu ere zorretan gaudet emandako tanta bakoitzagatik. Bergaran, Iruñean, Barakaldon... Bidea egingo dute tanta horiek, bertsogintzan, kul- turgintzan, herrigintzan... Erreka, ibai, bihurtu arte. Bukatu da txapelketa, eta aurrean daukagu bide- aren hasiera.

Eskuratu

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria** rekin



gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketako bertso nagusiak 2 DVDtan

ABENDUAREN 24TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Zuzenketa. Alegiako Kultur Batzordeak HITZAREN igandeko alean argitara- tutako gutunak horrela hasi behar zuen: «Urriaren erdian hasi eta azaro bukaera arte, hainbat ekintza eta hitzordu izan dugu Alegian, Udazkenean Kultura ekimenaren baitan. Denetarik eskaintzen saiatu gara, eta emaitzei dagokien, hirugarren edizio honen balantze baikorra egiten dugu. Antolatutako ekintzek harrera polita izan dute: azoka, ipuin kontalariak, abes- batzaren emanaldia, bertso afaria... Urterokoak bihurtzen ari dira batzuk, eta horiek batera, eskaintza berria lantzeko ahalagina ere egin da: ma- krobiotika eta txalaparta ikastaroa, mapa festa... Aurten proposamen berri eta interesgarriekin ikasteko eta gozatzeko aukera izan delakoan gaudu».



Omenaldi jendetsu eta hunkigarria

GIZARTEA • Salus Balza organista tolosarraren heriotzaren 25. urteurrenaren harira Laiotz elkaratek antolatuta, Hodeiertz abesbatza eta Arimaz kamera orkestraren kontzertua izan zen iragan larunbatean Santa Klara elizan. Tolosarra herritar ugari maite zuen adierazle, eliza jendez bete zen. Bi taldeak oso ondo aritu ziren, bukaera elkarrekin Balzak harmoni-

zatatuko bi obra eskainiz, eta tartean Eguberrietako pieza batzuk ere bai, Eguberri giroan sartuz. Organista bezala Borja Rubiños aritu zen Eduardo Mokoroaren *Cantate Domino* obran. Bukaera Udalak, Santa Maria parrokiako abesbatza eta orkestrak, bere ikasle ohiek eta Laiotz elkaratek opariak eman zizkieten Balzaren alargunari eta semeari. **HITZA**



Festa giroan oroitu dituzte jeltkideak

POLITIKA • Uzturre fundazioak Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebueta eta Gorka Agirre jeltkideak omentzea ardatz izan dituen *Abertzaletasuna zure eginez* jardunaldiak herenegun eman zieten amaiera, Zerkausan egin zuten ekitaldiarekin. Eguerdian hasi zen festa euskal kantu eta bertsoen doinuekin. Joseba

Egibarren hitzak ere entzun ahal izan zituzten bertaratu zirenek. Euskaldunen erabakitzeko eskubideaz jardun zuen, Eusko Legebiltzarrak onartutako Estatu Politiko berria eta Kontsulta Legea defendatuz. Hitzaldiaren ostean, arkumea dastatuz eta euskal doinuek lagun zituztela amaitu zuten festa. **SARA GOMEZ**

Laburrak

Asis Sareak antolatutako hitzaldia, Kultur Etxean

GIZARTEA • Asis Sareak Zentzuaren bilaketa gaur eta Asisko Frantzisko-ren espiritualtasuna izeneko hitzaldia antolatu du biharko. Kultur Etxean izango da, 19:00etan hasita. Informazio gehiagorako 646 21 48 96 zenbakira dei daiteke, edo bestela asisarea@arantzazu.org helbidera idatzi edo www.asisarea.org webgunean sartu.

Unai Elorriagaren hitzaldia gaur 20:00etan

KULTURA • Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Unai Elorriaga idazlea literaturaz mintzatuko da gaur. Kultur Etxean izango da 20:00etatik aurrera.

Alex Txikonen hitzaldia Oargi elkartean

MENDIA • Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren barruan, Alex Txikon-en *Makaluren mendealdeko zutabea* proiektioa izango da ikusgai, elkartean bertan, 19:00etan. Txikon Ederne Pasaban eta Asier Izagirreraren taldekide izana da. Bestalde, Oargi hilaren 19 eta 20rako eski irteera antolatu du Formigalera. 2 gau, 2 gosari eta afari batengatik 50 euro ordaindu beharko dira (forfaita aparte). Izena elkartean, 943 67 56 12 edo 688 69 86 42 zenbakietan edota www.oargi.org-en eman daiteke.

Urteko kirolari onenak omenduko dituzte

KIROLA • Bihar egingo dute Udaleko Kirol sailak bultzatuta, Kirol Gala. Bertan, 2009 urteko kirolari onenaren saria nork jaso duen jakingo da, besteak beste. Leidor aretoan izango da ekitaldia, 19:00etan hasita.

Amarotz auzoaren etorkizunaz bilera, gaur

GIZARTEA • *Amarotz Parte Hartzen* izeneko proiektua aurkeztuko dute gaur, Amarotz auzoko elkartean, Auzoetxan. 19:00etan izango da, eta herritar guztiak daude bertara gonbidatuak. Auzoak partaidetza prozesu bati ekin dio auzotarrek nolako auzoa eraiki nahi duten jakiteko helburuarekin. Ekitaldian, prozesua azaldu eta auzotarren ekarpenak jasoko dituzte.

Joseba Salbadorren lanaren aurkezpena

KULTURA • Joseba Salbador kazetari tolosarrak karlistaldiek Andoainen utzitako aztarnen inguruko liburua aurkeztuko du etzi, Andoaingo Bastero kultur gunean, 20:00etan. Burdina Taldeko kide bezala idatzi du, eta Andoaingo Udalak editatu du *Andoaingo Paperak* sailaren barnean. *Sorabilla, karlistaldien hondamendiaren lekuko* da izenburua, eta Adunako Udalaren laguntza ere jaso du.

Jaiotzen lehiaketan parte hartzeko aukera

ERREDAKZIOA

San Bernardo, Ttnttek, Kazkabarra eta Kirikiño aisialdi taldeek jaiotzen lehiaketan parte hartzeko deialdia luzatu dute. Abenduaren 30a bitarte Kultur Etxean eman ahal da izena, eta bestela, www.zazpitantriangulon.com webgunean. Urtarrilaren 5ean bertan ere egin ahal da, Plaza Zaharrean 18:30ak baino lehen.

Lehiaketan izena ematen duten partaide guztiak Errege Kabalga-

tan irtengo dira, eta hori amaitu ondoren eta sari banaketa burutu arte, Zerkausan egongo dira ikusgai jaiotza guztiak.

Epaiahaiak jaiotza egiteko eskulanaren trebezia, orijinaltasuna edota abilezia erostuko ditu kontuan. 40 euroko hartoketa txartela jasoko du jaiotza irabazleko partaide bakoitzak, 30 bigarrenekoek eta 20 hirugarrenekoek. Dena den, aurtun, lehen aldiz partaide guztiak jasoko dute oparia.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:

Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Larunbatean Vendetta, Des-Kontrol, Akatu eta Gose, Onddorock jaialdian

Villabona » Onddo Gazte Asanbladak antolatuta kontzertuak izango dira 22:00etatik aurrera pilotalekuan.

ENERITZ MAIZ

Villabonako Onddo Gazte Asanbladak 10 urte bete ditu aurtan. Tartean, momentu gogorak eta tokirik gabe geratzeari ere jasan behar izan dituzte. Baina guztiaren gainetik aurrera egin dute eta aurrera begira daude pasa den larunbatean eman zuten prentsurrekoan adierazi bezala.

Onddo Gazte Asanbladakoek 10 urte horietan urte oparoak izan dituztela gogoratu zuten eta era berean, irribarre, parranda, elkarbizitza eta betebeharrak askokoak izan direla. «Hala ere, Urdapilleta etxea utzi genuenetik lokal baten premian izan gara baina azkenean gazteon bultzadaz, Gaztetxe berria lortu dugu» gaineratu zuten.

Bi-hiru urte pasa behar izan dituzte Villabonako gazteek bereiztako txokorik gabe. Eta duela hilabete gutxi, Behar Zana Kirol Elkartea lekuz aldatu zela aprobeztatu zuten, hauen lokal zaharra okupatzeko. Geroztik Udala euren harremanetan jarri zen eta urte bukaera bitarteko kontratua sinatu zuten. Harremanetan jarraituko dute eta baldintza batzuk bete, aurrera begira tokia izango dutelakoan daude gazteak. Udala bere aldetik, lokalean egokitzapen batzuk egiten ari da.



Onddo Gazte Asanbladako kideak larunbatean eman zuten prentsurrekoan. ESTI EZEIZA

«Zaila izan da urtea. Hainbat lagun herriatik urrun eramanak izan dira eta gainera, gure lagun Remiren hilketak malko ugari isur arazi dizkigu», esan zuten billabonatar gazteek.

Hala ere, egoera zail eta gogorren aurrean, «min guztiaren gainetik, Villabonako gazteria indar gehiagorekin altxatu da. Horren lekuko da udazken honetan Onddo Gazte Asanbladak garatu duen dinamika oparoa», nabarmendu zuten. Haur eta gazteentzako ekintza ezberdinak antolatu eta eskaini dituzte eta giro horren barruan, larunbaterako, hau da, hilak 19rako jaialdi bikaina prestatu dute. «Villabonako gaztediari mu-

sika eskaintza zabala eskaintzeko asmotan, Onddorock jaialdia antolatu dugu», gaineratu zuten Onddo Gazte Asanbladako kideek. Era berean, herriko eta inguruko gazte guztiei luzatzen diete jaialdian parte hartzeko gonbita.

Kontzertu bikaina

Villabonako pilotalekuan musika bikaina entzuteko aukera paregabea izango da. Estilo ezberdinetako lau euskal talde bikain elkartu dituzte horretarako: Vendetta, Des-Kontrol, Gose eta Akatu. Parrandarekin jarraitzeko, Gatzet MJ izango da. Sarrerak jada, Villabonako Apatx, Maxola eta Iratzar tabernetan salgai daude. Aldez au-

rretik erosiz gero 12 euro ordaindu behar da eta egunean bertan 14 euroren truke eskuratzeko aukera izango da. Nola ez, bi barra ere izango dira pilotalekuan.

» ONDDOROCK

Abenduak 19, Villabona

■ **Kontzertua.** Des-Kontrol, Vendetta, Gose eta Akatu. Ondoren, Gatzet MJ.

■ **22:00etan.** Villabonako pilotalekuan.

■ **Txartelak.** Villabonako Apatx, Maxola eta Iratzar tabernetan daude salgai.

■ **Prezioa.** Aurrez erosiz gero 12 euro eta bertan 14 eurotan.

Irteera eta ikastaroetan izena emateko azken eguna hilak 16 da

Anoeta » Gabon egunetarako bi irteera eta haur zein helduentzako ikastaroak antolatu ditu Udalak.

E. MAIZ

Gabon egunak ia gainearen diren honetan, Anoetako Udalak, hainbat eskaintza prestatu ditu. Bai ikastaro aldetik eta baita irteera edota ekintzen aldetik ere.

Txiki park eta Txuri-Urdin

Hilaren 23rako Txiki Parkera irteera antolatu dute. Galtzerdiak eramatea eskatzen dute eta irteeraren kostua 8 eurotako da.

Hilaren 29an berriz, Txuri-Urdinera joateko aukera dago. Aldatzeko arropa eta eskularruak eraman behar dira. Irteeraren kostua, 8 euro da eta izena ematean ordaindu beharko da. Bi irteerarako izena emateko azken eguna hilaren 16 da eta udaletxean edo kiroldegian eman behar da. Autobusa 10:30ean aterako da farmazi aurreko geltokitik eta lehen irteeraren 13:30etarako bueltatuko dira eta bigarrenaren 14:00etarako. Bestalde, bi irteeretan apuntatu zuten gero, prezio berezia izango da, 14 euro ordainduz.

Ikastaroetan ere, hilak 16 da izena emateko azken eguna. Umeen-tzat xakea eta antzerkia daude eta helduentzako makrobiotika eta *oriental dance*, erlaxazioa, *fitball* zein defentsa pertsonaleko egun bateko saioak.



harpidedun izateak badu saria


① Erosketa balea

Ixabel oinetakoak dendan gastatzeko **100 €** ko balea

lurre auzoa 16
943 670 277

② Haur literatur liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



③ Diskoa

Ken Zazpi taldearen **"Ken Zazpi urte zuzenean"**
2 CD-DVD, bi harpidedunentzat



④ HITZA materiala

HITZAren material sorta ederra



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Altuna II.a eta Zeberio II.a, pauso sendoz

Erremontea » Bakoitzak bere lehen partida irabazi du asteburuan eta dagoeneko Zeberio II.a finalerdietan izango da.

ERREDAKZIOA

Datorren asteburuan erabakiko da zeintzuk izango diren Erremonteko Binakako Txapelketako finalerdiak jokatuko dituztenak. Oraingoz garbi dago lau bikote horietatik bat Zeberio II.a elduaindarrak eta Badiolak osatuko dutela, asteburu honetan Uterga-San Miguel bikoteari 40-25 irabazi eta txapelketatik kanpo utziz. Altuna II.a amezketarrak garaipena eskuratu zuen Etxeberria III. bikotearekin eta asteburu honetan aukera sendoak ditu finalerdietara igarotzeko.

Zeberio eta Badiolak datorren larunbatean Juaristi-Urrutia bikotearen aurka jokatuko dute eta hor erabakiko da zein izango den A taldeko lehena. Pasatu berri den aste-



Badiola eta Zeberio II.a. HITZA



Etxeberria III.a eta Altuna II.a. HITZA

buruko partidari ez ziren ondo ibili Zeberioaren aurkariak. El duaindar aurrelaria Uterga aurkariaren baino hobeto aritu zen, indartsuago eta askoz hobeto amaitu zituen tantoak. Zeberioak guztira 16 tanto egin zituen eta lau akats besterik ez.

Altuna eta Etxeberria, tinko

Bikote indartsua direla erakutsi dute kanporaketako lehen partidari Altuna II.ak eta Etxeberria III.ak. 40-33 irabazi zioten Urriaza-Lizasori eta finalerdietara igarotzeko B taldeko hautagai nagusienak direla esan daiteke. Datorren igandean Ezkurra-Ion bikotearen aurka jokatu dute bigarrena erabakiorra izango den partidari.

Nagusitasuna erakutsi zuten amezketarrak eta bere bikoteak, baina Urriazak eta Lizasok ahal zuten bezala eutsi zien eta tanto dezente egitea lortu zuten. Altuna II.a oso ondo aritu zen. 24 tanto egin zituen eta lau akats besterik ez.

Berlingo harresia hizpide izango da gaurkoan Gaztetxean

Alegia » 22. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan antolatuko dute; larunbatean 80 lagun izan ziren kontzertuan.

ERREDAKZIOA

Alegiako Gaztetxea bere 22. urteurrena ospatzen ari da eta horren baitan Berlingo harresiaren inguruko hitzaldia izango dute gaur. Larunbatean babarrun jatea eta mus txapelketa izan zituzten eta 35 lagun inguru elkartu ziren. Gaur 80 lagun izan ziren Desordutan taldearen kontzertuan. «Dena espero bezala ateratu zen eta giro ona izan zen», azaldu dute Gaztetxetik.

» EGITARAUA

- **Abenduak 15, gaur.** 21:30ean, Berlingo harresiaren inguruko hitzaldia.
- **Abenduak 16, bihar.** 21:30ean, zinekluba.
- **Abenduak 17, etzi.** 21:30ean, Asier Izagirrek mendiko diapositiba batzuk botako ditu.
- **Abenduak 18, ostirala.** 22:00etan, kontzertua Sexty Sexers eta Sermond's taldeekin.
- **Abenduak 22, asteartea.** 21:30ean, Nepaleko treking bateko argazkiak.
- **Abenduak 23, asteazkena.** 21:30ean, zinekluba.
- **Abenduak 26, larunbata.** 22:00etan, Play Back-a.
- **Abenduak 29, asteartea.** Urte festa arratsaldean.
- **Abenduak 30, asteazkena.** 21:30ean, zinekluba.
- **Urtarrilak 3, igandea.** Antzerkia Suyanema eta Alegria hermanas taldeen eskutik. *Orden cotidiano, En el aire eta Puerta!!* obrak emango dituzte.

LABek irtenbideak eskatu ditu

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuko zenbait kidek elkarretaratzea egin zuten larunbatean Bidegoiango Iriarte Ostatuaren aurrean, bertan Tolosaldea Garatzen osatzen duten eskualdeko 28 herrietako ordezkariak bilduta zeudela. *Tolosaldeak irtenbideak behar ditu* zioen pankarta erakutsi zuten elkarretaratzean. «Tolosaldea oso egoera larrian aurkitzen da eta egoera okertu ez dadin irtenbideak eta neurriak hartu beharrean gaude», azaldu dute LABetik.

Tolosaldea Garatzeneko batzarraren parte hartzea ez zela beraien



Iriarte Ostatuaren aurrean egindako elkarretaratzea. HITZA

asmoa, «baina gonbidatu gaituzte, bertan zeudenei era labur batean izan bada ere gure hausnarke-ta azaldu diegu». LABen ustez kezka gehien sortzen duten egoerak azaldu zituzten: «Suertatu diren itxierak, Gorostidi, Emusi, Amaro eta beste enpresa batzuen egoera kezagarria».

Sindikatuok, «egoera larri hau kontuan edukita», erabakiak hartzeko eta eskualdeko apustu estrategikoak zer eta norantz joan behar duen jakiteko «ordua dela» azaldu zuten. «Horrela jarraituz gero oso garbi dago pikutara doala Tolosaldeako industria eta honen ondoren, beste sektore guztiak sufritu beharko dituztela ondorioak», gaineratu zuten LABeko ordezkariak.

Zure hizkuntza eskubideak ezagutzen dituzu?

Gizarte elebidun honetan, zure zalantzak, galdak eta kezak argitu nahi dizkizugu. Zure eskubideak bermatzeko bitartekotzan egiten dugu lan.

elebide

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Gaur Emeterio Sorazuren 'Joxe Mari Garmendia Ezeiza: Fedea eta bizitza bertsotan 1971-2009' liburua aurkeztuko dute, 20:00etan, udaletxean; bertan ibartar misiolariak apaiz zerbitzuan orain arte egin duen ibilbidea jaso du Sorazuk, baita ibilbide horretan sortutako bertso sorta ederra ere.

«Joxe Mari, gizon eta fedezko»

NOELIA LATABURU

Joxe Mari agertzen zaigu beti gizon, pertsona maitea, hurbileko, alaia, bizipozez betea, itxaropena eta bakezaletasuna nonahi, sinestuna». Hitz goxo hauek eskaini dizkio Emeterio Sorazuk Joxe Mari Garmendia Ezeizari. Gaixo egonagatik berelagunaren inguruan hitz egin nahi izan du bere azken libururen aurkezpenaren bezperan.

Hain zuzen, gaur aurkeztuko dute udaletxeko pleno aretoan, 20:00etatik aurrera, Sorazuren azken lana, *Joxe Mari Garmendia: Ezeiza, fedea eta bizitza bertsotan 1971-2009*.

Liburuan bi asmo argitaratu dituela azaldu du Ibarro apaizak, Sorazuk. Alde batetik, Joxe Mari Garmendia Ezeiza «Ibarro semearen bizitza eta bere pastoral-gintza laneko joan-etorriak»; eta bestetik, lan hori adieraztean berak erabili duen bertsogintza, alegia, «bertso sentipenez aurrean zuen adierazpena». Bi asmo hauek «era apalean baina neurri onenean argitaratu ditut», adierazi du.

Liburuaren helburuaz ere jardun du Sorazuk: «Joxe Mariren misiolaritza lana eskertu nahi izan dut, baita miretsi eta plazaratu ere». Hau gainera, hogeita hamar urte hauetan Joxe Mari Garmendiak berak ahorratu dituen «bertso multzo zabal eta ederretik» egin du.

Joxe Mari Garmendiaren lana eskertu nahi izan du Sorazuk, baita «miretsu eta plazaratu» ere

Gaztelun, Venezuelan, Oartzunen, eta Ekuadorren eginiko lana bildu ditu liburuan

Garmendiaren bertso guztien artean aukeraketa egin du Sorazuk libururako



Pasa den apirillean bere tesia berrargitaratu zuen Emeterio Sorazuk; gaur bere azken liburua aurkeztuko da. R.C.

Elizkizunak bertsoz eginak

Duela hogeita hamar urte inguru, Joxe Mari Garmendia parroki lanetan ekin berrian zelarik, bere ospakizunen osagarri eta betegarri bezala elizkizunak bertsoz burutzen hasi zen. «Liburu honetan bere bertso sail handiena, elizkizunen laburpenak eta bertan aipatzen denaren pasadizoak jaso ditut», argitu du Sorazuk.

Egileak ez du duda izpirik, urte hauek guztiek sailkatzea merezi zutela esaterakoan; «Bere ongi beharrez Joxe Mari Garmendiaren pastoral herrien bide bera jarraitzen dugu», gaineratu du.

Lau zati bereiztu ditu Sorazuk liburuan. Gaztelu, Joxe Mari Garmendiaren lehenengo pastoral aldia; Venezuelen eginiko misiolaritza animazioa, bigarren; Oartzun, bere hirugarren pastoral aldia; eta azkenik Ekuadorren, Santa Rosako elkartean, aurrera eramane dituen ekintzak, proiektuak, kristau elkarteen animazioa

eta solasaldiak. «Joxe Mari handik, Ekuadortik, etorri zaigu eta hara itzuliko da».

Bi mila bertso inguru

Guztira Garmendiaren bi mila bertso inguru bildu ditu Sorazuk liburuan, guztiak ere «bertsolariaren espirituz eta sentiberatasunez josiak, eta sinesmenak eskaintzen

duen itxaropenez» bete-beteak. Hauetan gai ugari izan ditu hizpide Garmendiak: «Pertsonen bizi-pozak, jaiotzak, bataioak, izen-emateak, heriotzak, gaixoaldiak eta bizitzaren premioak», besteak beste.

Garmendiaren bertso guztien aukeraketa bat baino ez da argitalpen hau, izan ere, «ez zen posible

MERKATU TXIKIA PARROKIKO LOKALETAN

Ibaratik Misio Taldeak egun hauetan Merkatu Txikia martxan du, parrokiako lokalean. Duela hamaika urte hasitako merkatu honen bidez, jende askoren elkartasuna oso agerian geratzen dela goraipatu dute Misio Taldeak. Batzuk material desberdinak oparitzen dituzte, beste batzuk merkatua muntatzen dute, beste asko bertara hurbiltzen dira zerbait erostea. Bakoitzaren ekarpen txikiarekin, Monbain (Indian), Aldea Suyapan (Honduras), Baban eta Santa Rosan (Ekuador) garapenerako proiektu desberdinetan laguntzen da.

Halaber, Eguberri egunean, Parrokiko Koruarekin batera, Ibarro kaleetatik arituko dira: «Eguberriak sinesmenez, dakarren itxaropena kantatzen eta aldarrikatzen ariko gara». Bertan bildutakoa proiektu horietara bideratuko dute.

Antolatzaileek hau dena posible egiten duten guztioi eskerrak eman nahi izan dizkiete.

» AURKEZPENA

■ Zer.

Joxe Mari Garmendia Ezeiza: fedea eta bizitza bertsotan 1971-2009 libururen aurkezpena.

■ Noiz.


Gaur, 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan.

■ Egilea.

Emeterio Sorazu.

■ Laguntzaileak.

Ibaratik Misio Taldea eta Ibarroko Udala.



Liburuaren azala. HITZA

berak eginiko denak argitaratzea, luzapenaren nekagarri izango litzakete eta».

Bertsoen bitartez, «fedea eskainiz eta oparitzu»

Aurrez aipaturiko herrien arabera idatzia daude bertso hauek, hau da, Gaztelu, Venezuelan, Oartzun eta Ekuador herrien arabera. Liburuan, noski, ez da musikarik agertzen. «Hori bakoitzaren esku geratuko da», argitzen du Sorazuk.

Bertsolaritza gogoko dutenentzat Garmendiaren bertso bakoitzaren amaiera erreplikagarri egitea oso atsegina izango dela dio Sorazuk. «Hori da, hain zuzen ere, Joxe Mari, lortu nahi zuena, bizi-pozeko une eta eragin ederrenak, ereduak jarraituz, txantxak, giza esker onak, adierazpen txukun eta originaltasunez bere fedea sendiarri, Ibarro, parrokiari eta elkarteari eskaintzea eta oparitzea».

Hitz goxoekin hasi eta hitz goxoak erabiliz amaitu nahi izan du Sorazuk Garmendiaren inguruko solasaldia: «Bere bizitza fede begiekin irakurritu eta bizitza bera Ebanjelioaren eraginetan sustraituta; Joxe Mari Misolari, bertsolari eta herrikoi; Joxe Mari gizon eta fedezko».



ONDDOROCK musika
jaialdirako
sarrera pare

Abenduak 19 • Larunbata
22:00etan
Villabonako pilotalekuan



sarrerak

Tolosako Orfeoia
Gabonetako kontzertua

Abenduak 23 • Asteazkena
20:30ean
Leidor aretoan

TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



Gaur hasiko da Martxelo Otamendi eta bere kideen aurkako epaiketa

'Egunkaria Auzia' » Bost auzipetuak atzo joan ziren Madrilera. Larunbateko manifestaziora joateko eskatu zuten.

ERREDAKZIOA

Ia zazpi urte pasatu dira Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuela. Eraso judicial hark izugarritzko lurrikara politikoa eragin zuen Euskal Herrian, eta jasotako elkartasuna eta gizar-tearen erantzuna ere tamaina berekoa izan zen.

Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga «orduko erasoak bere horretan jarraitzen duelako, gaur hasiko den epaiketa, ordukoaren hari luzea» dela esanaz abiatu ziren atzo Madrilera.

Aurrez, hilaren 19ean, larunbatean, Bilbon *Egunkaria libre!* lelo-



Gaur hasiko da epaiketa Madril. Bost auzipetuak atzo irten ziren Andoingo Martin Ugalde Kultur Parketik. HITZA

pean egingo den manifestaziora joateko deia egin zuten.

Eskualdetik autobusez joan nahi dutenek, txartelak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren egoitza nagusian, Galtzaundin eta Denak eta Raku tabernetan dituzte salgai, 10 euroren truke. Hilaren

19an, autobusa zezen plazaren aurretik 15:00etan irtengo da.

Gaur, Tolosan elkarretaratzea
Berastegin hereneun 40 bat lagun egin zuten bezala, Egunkariaren aldeko elkarretaratzea egingo dute gaur Tolosako Triangulon

20:00etan, Egunkariaren aldeko batzordeak deituta.

Madril. martxa debekaturik
Auziaren inguruko gora behera guztiak eta elkartasun ekitaldien inguruko berriak zabaltzeko, bi webgune egokitu dituzte:

» ZIGOR ESKAERAK

Dignidad y Justicia eta AVTren eskaerak

■ **Martxelo Otamendi**. 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.

■ **Joan Mari Torrealдай**. 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.

■ **Iñaki Uria**. 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.

■ **Txema Auzmendi**. 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa.

■ **Xabier Oleaga**. 12 urteko espetxealdia eta 14 urteko inhabilitazioa. AVTk 14 urteko espetxe zigorra eskatzen du.

www.egunkaria.info eta www.berria.info

Hauetan, Bilboko manifestazioaren inguruko atxikimendu desberdinak aurkitzen dira. Albistearen ondorengo ere irakur daiteke: «Abenduaren 19rako manifestazioa antolatu dute 17:00etan Bilbon, Egunkaria auziko auzipetuek. Deialdi horrekin bat eginez, Madril. Egunkaria-ren babeserako plataformak antolatutakoa debekatu egin du Espainiako Gobernuko ordezkariak».

Guraso Elkartearen ikastaroa, gaur Areson

ERREDAKZIOA

Guraso Elkartek antolatuta, Herriko Federazioaren eskutik, datozen egun eta hilabeteetan gurasoentzako prestakuntza programajarroko dute abian.

Guztira 3 ikastaro eskainiko dira eta lehenengoa gaur bertan izango

da, udaletxeko Batzar Aretoran 16:00etan. Helburuen artean, ondorengoak aurkitzen dira, besteak beste: Guraso Elkarteari buruz jakin beharrekoak; bilkurak prestatzearen ingurukoak; bilkurak garrantzari dagozkionak eta bilkurak nola bukatu.

Leitza nagusi Malerrekan

ERREDAKZIOA

Euskaraz Bai Malerrekan ekimenaren barneko pilota txapelketa leitzarrek irabazi zuten hereneun Donezteben.

Aurrerako pilotariek Baztanen aurka hirutik bi partida irabazi zituzten.

Koldo Hernandorena-Hegoi Txoperenak jokatu zuten benja-

minetan, 18-10eko garaipena lortuz. Ondoren Ander Gartziaarena-Mikel Sagastibeltza irten ziren kantxara eta Aurrerako infantilek 18-17 irabazi zuten.

Azken partida Anartz Olano-Mikel Hernandorenak jokatu zuten, kadeteen mailari zegokiona. Kasu honetan Leitza bikoteak 11-22 galdu zuen.

Jaunarena-Jakak ezin

Diario Vasco Txapelketaren baitan, finalerdietan, Jaunarena-Jaka bikoteak amore eman behar izan zuen Ezkurdia eta Arratibelen aurka.

Leitzarrek eta lizartzarrek 17-22 galdu zuten euren partida, eta ondorioz Txapelketatik at gelditu ziren.

Hilberriak

EÑAUT ALDANONDO BEGIRISTAIN

Gure bizitzak edo patuak zenbat trantze ta ikasgai? San Beniton triste gabilta ta ez dugu sinistu nahi zauden lekuan zaudela Eñaut agintzen dizugu lasai: zure irriparra izango dela gure lanean bizigai.

San Benito Ikastolako guraso, ikasle eta langileak

LAZKAO
2009ko abenduaren 15a

EÑAUT ALDANONDO BEGIRISTAIN

Loreak nola mendi goietan sustraitzen duen bizia, hala erein duk bihotz denetan laguntasunan hazia.

Koadrilakoak eta lagunak

LAZKAO
2009ko abenduaren 15a

EÑAUT ALDANONDO BEGIRISTAIN

Larunbatean hil zen, 32 urterekin, mendiko istripuan.

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik. Beti gurekin izango zara.

Goierriko Eskola Kiroleko lagunak

LAZKAO
2009ko abenduaren 15a

EÑAUT ALDANONDO BEGIRISTAIN

Samiñak mututu gaitu lagun zoragarria galdu dugu izotzondoko eguzkiak hartuko zaitu.

Gero arte Eñaut

Udalekuetako taldea

LAZKAO
2009ko abenduaren 15a

BEGOÑA AGIRRE ZEBERIO

(Izoa Begoña)

— Goian bego —

Kaie, Elena, Aitor, Amaia, Iker, Lucia, Joseba, Miren, Eneko, Harkaitz, Aiora, Gorane, Irune, Xabi, Mikel, Jone, Julen, Nahia, Malen, Amets

ATAUN
2009ko abenduaren 15a

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalea: 687 410 118. leitzalea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Lehiaketa

■ **Tolosa.** Emakumeak eta migrazioak komiki lehiaketa Tolosaldea Garatzenen Inmigratio Sailak antolatuta. Lanak hilaren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeneko Inmigratio Sailean (943 65 45 01).

hilaren 31a arte ikusgai Beti Alai tabernan.

■ **Tolosa.** Ignacio Garciaren margolanak ikusgai hilaren 31a arte Itaie tabernan.

aurrera herriko plazan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-ko Arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Iñaki Elolaren argazkiak

Deialdia

■ **Irura.** Herriko gazte talde batek bidezko merkataritzako produktuak bilduko dituen postua jarriko dute igande goizean 11:00etatik



Pilotaleku berriaren inaugurazioa

ZIZURKIL ● Herenegun inauguratu zuten Zizurkilen frontoi berria. Pilotalekuak hezetasun arazoak zituen eta Kirol Astea amaitzeko Intxaur pilotalekuari itxura aldatu eta inaugurazio jaia egitea erabaki zuten. Teilatua, argiak, sarea eta aulkiak berriro dizkiote beste aldekata batzuen artean. Inaugurazioaren ondotik, sortu berri den Ziotza Pilota Eskolakoen partidak ere izan ziren jai giro bikainean. S. GOMEZ



AUSAMENDI
Jean-Marie Le Clezio



BETAHARRI
J. A. Arrascaeta



ZARMA
J. A. Arrascaeta




HAIZEA GARZUMARDA
J. A. Arrascaeta



16 LORE
J. A. Arrascaeta

Egunkaria
libre!



manifestazio
nazionala

Abenduak 19, larunbata
17:00etan Bilboko Autonomia kaletik

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko